

## **1.- BALOREZKO PROPOSAMENAK**

Gaur egun, geroz eta jende gehiagok bazkaltzen du etxetik kanpo, zenbait arrazoi direla medio. Gehienetan, etxetik kanpo bazkaltzen dutenak ikasleak eta langileak izaten dira, beraz, bai ikasle zein langileek etxetik kanpo otorduak egiteko, betiere etxetik eramaten badute, jana eramateko modu bat behar dute.

Lehen esan bezala janaria eskolara edo lanera eramatea oso ohikoa da gaur egun, baina jende askok jana hotza jan behar izaten du, bere termoak ez duelako bero irauten denbora luzez edo tuperrak eramanez ezker ez dutelako mikrouhinik berotzeko. Jan hotza azkenean arazo bat bihurtzen da jende askorentzat, eta arazo horren aurrean, gure taldeak orain arte ikusi ez den tuper bat proposatzen die.

Tuper berogailu bat asmatzea bururatu zaigu. Merkatuan ez dago horrelako tuperrik eta ideia erakargarria nahiz erabilgarria iruditzen zaigu. Kristalezkoa izango da eta tapan edukiko dituen eguzki plaken sortutako energiaren bidez berotuko du janaria. Bestalde, jana berotzeko mekanismoa martxan jarri dadin, botoi bat ere izango du. Horrez gain, behar bezainbeste energia ez dugun egunetarako kable baten bidez entxufe batera konektatzera egongo litzateke, baina hau azkeneko momentua egin beharko litzateke. Izan ere, gaur egungo egoera ikusita, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ingurumena zaintzea eta helburu horrekin sortu dugun produktu hau; entxufe batera konektatzeko abantaila hau, behar-beharrezkoa den uneetan bakarrik erabiltzeko asmatua izan da. Horrela, bezeroak uneoro erabili ahal izango du gure produktua, baina lehentasuna emanez energia berriztagarriak erabiltzeari.

Tuperrei dagokienez, hiru tamaina desberdinetakoak sortuko ditugu hasteko (txikiak, ertainak eta handiak) , eta gero agian gure eskaintza handitzen joango gara. Koloreei dagokienez, bost koloretakoak eskainiko ditugu: gorria, urdina, morea, beltza eta berdea.